# SRI PRADA

## TXIMELETA BEGIAK DITUEN MENDIA

**Koldo Almandoz**

***MENDEETAN zehar, Sri Lankako biztanleak, harriz harri zerura igotzen zen bidea eraiki zuten. Gailurrean, 2.243 metrotara, urrats bat aurkitu zuten eta orduan konturatu ziren zein nimiñoa den gizona jainkoen aurrean.***






«Sdman Jainkoaren etxea zerutik ikusita»

## Unas notas sobre el Sri Prada

*EL cuarto pico en altitud de Sri Lanka, el Sri Prada o Adams Peak (2.243 m.) es probablemente el más interesante de la isla, constituyendo un lugar sagrado de peregrinación para todas las religiones. Ya en el S. XIV nos consta que fue ascendido por el famoso viajero musulmán de Tánger Ibn Battuta. En la cima hay un hueco con la forma de una gigantesca huella de pisada humana de 160x75 cm., que se atribuye alternativamente a Adán, Buddha, Shiva y Santo Tomás. Los peregrinos suben normalmente de noche, para evitar el calor y contemplar desde arriba el amanecer después de haber ascendido los 3.306 escalones de piedra, con la ayuda de una barandilla metálica que empieza por encima de la selva.*

*Miles de peregrinos suben cada semana. Puede ser la montaña que más ascensiones registre, de todo el mundo.* ❑



***Oianak guttiraka iristen du behelainoa.***

Sri Lankako lau erlijio nagusiak sakratutzat hartzen dute mendi hau. Tontorrean dagoen templuaren barneko urratsa esanahi berezia du erlijio bakoitzarentzat. Budistek diotenez, Gautama budaren urratsa da Sri Prada (urrats sakratua) deitzen duten mendiaren puntan dagoena. Hinduentzat Shivaren oinaren seinalea da eta mendia Shiva Adipatha izenarekin ezagutzen dute. Musulmanek, Adam-ek lurrean eman zuen lehen pausoaren seinale dela diote eta kristauentzat santo Tomas apostoluaren urratsa da mendiaren puntan dagoena. Bi erlijio hauek Adams Peak bezala ezagutzen dute Sri Lankako tontorra.

Hala ere, erlijio guzti hauek iritsi baino lehen, mendi hau Samanala Kanda (Saman jainkoaren etxea) zuen izena. Mendi honetan biltzen diren tximeleta hodei horiak "samanalayo" izena dute eta sinismen zaharrek diotenez tximeleta hauek Saman jainkoaren begiak dira.

***Igoerako edozein txokoan aurkitu daiteke te bat «ostatua»***



Fotos: Koldo Almandoz



*Recogiendo el té, una importante actividad para la economía de la isla.*

## Erromesen bidea

Sri Prada, gaur egun, Sri Lankako peregrinazio gunerik garrantsitsuena da. Urtero, milaka erromes igotzen dira tontorreko templura egunsentian otoitz egitera. Templura igotzeko bidea abendutik maiatzera bakarrik dago irekita. Urteko beste edozein garaietan ezinezkoa da, elefanteak, monzoia dela eta, lautadetako ohianetara bide honetatik jeisten bait dira. Igoera Maskeliya herritik hasita, harrizko eskailera batzuetatik egiten da. Milaka eskailerak goruntz egiten dute ohiana zegarkatuaz suge bukaezin baten modura. Erromes gehienek gauez egiten dute igoera. Bideko zati batzuetan argi posteak gau osoan pizturik diraute eta gune hauetan biltzen dira erromesak atsedena te batez bustitzera.

Templu budista, tontorreko harkaitz batzuen gainean dago eraikita. Harkaitz hauetara heltzea ez da zaila baino nahiko neketsua suertatzen da, eskailerak igotzea belaunak astiro mintzen ditu eta erritmoa mantentzea komenigarria da. Templura iristeko, harkaitzetan eginiko eskailerak pasa behar dira eta hau da igoerak duen zailtasun bakarra. Hala ere, fedeak bultzatuta edo, erromes guztiak inungo arazorik gabe heltzen dira templura. Ohitura jarraituaz, igoerako bidean ez da galdetu behar zenbat geratzen den tontorrera, honen aldean "karunavai" (pakea) esan behar zaio gurutzatzen den orori.

Egunsentiaren argiak ohianaren kolore berdea pizten du eta zuhaitzek behelainoa xurgatzen dutela dirudi. Haizeak gogor jotzen du tontorrean templuan bizi diren sei monjeak eskertzen dute goizeko beroa. Otoitzen ondoren beheruntz abiatzen dira berriro erromesak eguerdiko beroa itzurtzeko. Batzuetan, hala ere, zaharrak eta erre-nak bi eta hiru egun ematen dituzte igoeran eta beste hainbeste beheko bidean. Arrazoi honengatik, eskailera hertzetan badaude "ambalana" deituriko babeslekuak. Eskailerak Maskeliyara gerturatzen diren einean, zuhaitzek te plantazioei uzten diete lekua eta hodeiek templua ezkutatzen die goruntz doazen erromesei.

"karunavai"❑

*El centro de la isla es montañoso y está surcado de barrancos.*



Fotos: Antonio Ortega




### MOSQUEO

COMENCÉ a ascender a la una y media de la madrugada. Hice casi toda la ascensión solo hasta que casi en la cumbre vi unas siluetas en la escalera. Cuando me acerqué y vi que eran soldados sentados en las escaleras les adelanté sonriendo y saludándoles ... "kurunavai" "kurunavai" "intsumisioa". Poco después oí ruido de botas que corrían detrás de mí. Del acojono casi me salgo del camino para esconderme en la selva. Me quedé quieto y me alcanzaron. Se debieron de picar cuando les adelanté y subieron a paso ligero hasta cogerme. Llegamos juntos a la cumbre y allí nos sacamos unas fotos. Uff! ❑